



Kurt Diemberger mendizalea

“Aireko iratxoek baino ez dakite zer dagoen mendiaren atzean”. Groenlandiako atsotiz hori da Kurt Diemberger-en (1932, Villach, Austria) iparra, edonon dabilela ere; berdin iparraldeko izotzetan, Amazonasen, Alpetan, Karakorumean edo Himalaian... Zortzi mila metrotik gorako mendietako bitara igotzen aurrena izan zen Kurt Diemberger. Bizirik dagoen mendizale bakarra da hori esan dezakeena.

NANO SANCHEZ GRASSA
Argazkiak: Kurt Diemberger

«Alpinismo ona alpinismo sortzailea da»

Umezaroan, kristal bila, mendirantz egiten zuen. Kristal haiek, beraien baitan, mendien izatea eta indarra gordetzen zutela iruditzen zitzaion orduan. Gerora mendien handitasuna kameraz atzeman guran aritu da luzaz. Egun esploratzen eta filmatzen segitzen du. Bologna-ko (Italia) etxetik joan-etorrian alabarekin ari da berriz deskubritzen biziz gainezka dauden mendiak; ertz zorrotz eta harkaitzaz harago jendeak, espirituek eta sentsazioek betetako mendiak. Lehengo lepotik du burua; idazten, filmatzen, hausnartzen eta ibiltzen jarraitzen du. Eta komunikatzen; pixka bat italiaraz, beste pixka bat ingelesez, katalanez, gaztelaniaz eta alemaneraz... solas bakoitzeko sendotzen duen berbaldia ehunduz.

Mountain Wilderness mugimendua Europan sustatu zutenetako zara. Mendiak berezko egoera basatian iraun dezaten erasotzaileengatik defendatu beharraren sentimendua zabaldu nahi duzue. Euskal Herria zementuz estaltzen ari

diren honetan, Picos de European eta Pirinioetan proiektu erraldoiak egin asmo dituzten honetan, nahikoa mobilizatzen al dira mendizaleak?

Mendizaleak... Beno, denak ez dira mobilizatzen, baina gehienak bai. Kataluniako FEEC (Federació de Entitats Excursionistes de Catalunya) adibidez Mountain Wildernessko kide da. Neu elkarte horren bultzatzaile eta babesle naiz. Sinesten dut egiten ari garen lanean. Funikularrez josten ari dira bazterrak, zerbait egin beharra dago... Picos de European, adibidez, gogor borrokatu ginen funikular bat eraikitzearen aurka eta han dago; azkenean finantzak garaile.

Himalayan eta Karakorumen ere antzera gabilta; han ere eraso mendiar... Aksole-raitako errepideak Baltoroko glaziarra arrisku bizian jarri du. Hiru egun motzagoa izango da gerturatzeko martxa, egia da, baina abentura ere motzagoa izango da. Mendia jendez betetzen ari da, masifikazioaren fenomeno agertuko da... Hainbeste jende ez da ona. Muga bat eta errespetua behar dugu. Mendian, edo

da. Sarritan seigarrenaren kontrakoa da. Egoera zailtan eztabaida bizi izaten du pertsonak bere golkorako, ahots askoko debatea barne kontzientzian. Barne gatazka horren ostean hartutako erabakia, edo bidea, eta horren hausnarketa beste zentzumen gorengo batekoak dira, beste zentzumenen gainetik dagoena.

K2n Mari Abrego eta Josema Casimiroekin egon zinen. Zer deritzozu euskal herriko goi mendizaleei buruz?

Zer esango dizut ba, oso zangarrak eta indartsuak direla euskaldunak. Mari, Josema, Julie eta laurok sokan elkarrekin joatekotan ginen K2n. Oso ondo ulertzen genuen elkar. Kataluniarrak ere kementsuak dira. Oscar Cadiach ezagutzen dut, Jordi Pons ere bai –Mountain Wildernessen dabil bera ere–, Pep Masip...

50eko hamarkadatik gaur arte mendiko materiala nola aldatu den ezagutu duzu. Alpinisten mentalitatea hein berean aldatu al da?

Harrigarria da, materialak izugarri eboluzionatu du, onerako. Egin kontu 50eko hamarkadatik gaur arte erabat aldatu dela dena. Lehen walkie-talkie batek 11 kilo pisatzen zituen, hortik atera kontuak... Gaur eraginkortasuna lortu da GPS bezalako aparailuekin, edo jumar-a [soka batetatik gora egitea errazten duen eskuko aparailua] bezalako trepetekin; lehen korapiloak erabiltzen genituen...

Alpinismoa bera ere... Gaur adar anitz ditu mendizaletasunak, espezialitate asko: kirol eskalada, big-wall-a, alpinismo garbia, beno, ja ez da garai batean bezain garbia baina tira... Erraztasun gehiegi. Esporazio-alpinismoa, garbi-garbia dena, apenas geratzen da. Oso gutxi dago! Izan ere oso zaila da hori. Diruagatik ere bai, nekeza baita babesleak topatzea. Inork ez ditu txakur txikirik emango mendi ezezagunetara joan zaitezten, izenik ere ez duten mendietara. Everestera joateko, ostera, errazago batuko dituzu sosak.

Fritz Wiessner-ek, AEBetan herriratutako alemaniar batek, K2ko gailurra (8.611 m) jo zuen ia 1939an, ez oxigeno ta ez ezer, orduko materialarekin. Eta mendxia ere aldatu da, nik

ingurumenari dagokionean orokorrean, kontuan izan behar dugu oinarritzko legea nekearen muga dela, itomenaren muga. Mendiak ere kolapsatu daitezke, badute tolerantzia topea.

Mendiko literaturan klasikoa zara, espedizioetan ere, zure liburuak dira gehien irakurtzen direneta-koak. Ze liburu eramango zenuke mendira?

Hermann Buhl-en bat, berriki atera dute berredizioa alemanieraz eta bere diarioak jaso dituzte. [*Achttausend drüber und drunter* (Malik, 2005) liburuaz ari da. Lan horretan Buhlek Nanga Parbat, Broad Peaken eta Chogolisan –desagertu zen mendian– idatzitako diarioak bildu dira. Hitzaurrea Hans Kammerlander eskalatzailearena da eta Kurt Diemberger beraren iritziak ere topatu daitezke].

Beti kontatu izan dituzu mendiko ibilerak filmazio eta liburu bidez. Alpinistek, jeneralean, badute joera beraien bizipenak komunikatzeko, mendia kontatzeko. Beste kolektibo batzuekin ez da gauza bera gertatzen, futbolearen adibidez. Nondik datorkie mendizaleei komunikatzeko beharra?

Ba ez dakit. Baina horrela da. Mendizaleek komunitate izaera barneratua dute, talde bat osatzeara. Agian horretan datza arrazoia.

Non zaude zu hobeto, mendian ala hirian?

Edonon! Mendia primerako lekua da, hirian, Bolonian ere oso ederki egoten naiz, liburu-idazten.

Dozena erdi liburutik gora argitaratu dituzu. Azkena *Der siebte Sinn* (Zazpigarren zentzumena)

Bai, hori da azkena. Seigarren zentzumena jarri behar nion. Orain arte publikatu ditudanetatik diferentea da. Gaur den egunean, atzerantz begiratu, metatutako eskarmentua ikusi eta ueste dut badudala gazteei irakasteko zer edo zer.

Seigarren eta zazpigarren zentzuek ari naiz: Intuizioa, sena, bisutsak harrapatuta zauzkanean nondik jo esaten dizun hori,... hori dena da seigarren zentzua. Zazpigarrena, aldiz, zerbait sortzeko grina da, filma egin edo liburua idaztekoa, mendi tontorrera iristekoa... Behar den unean “aurrera!” agintzen dizun zentzumena

Goiko irudian Mari Abrego, ezkerrean, eta Josema Casimiro, eskuinean, 1986an K2ra iritsi ziren italiarrek antolatutako espedizio batean. Biak heldu ziren mendi gainera ekainaren 23an Abruzzo-en murrutik: Renato Casarotto (erdian) HHMko ertzetik ahalegindu ostean arrakala batera erorita hil zen. Azpiko argazkian, Casarottoren denda atarian, Casarotto bera, Abrego, Diemberger eta Tullis. Erretratu honek badu bere ‘bikia’, bertan Casimiro agertzen da Abregoren lekuan.



Munduko filmazio talde garaiena

Irribarrez oroitu du kranpoiak lotu zituen estreinakoa, sorlekuan bertan, Austriako Alpeetan; Grossglockner (3.798 metro) igotzeko. Orduz geroztik ez da gelditu. Alpeetako ipar aurpegi handiak, Gran Zeburu aurreneko igoera. Gero, bost urtez matematika irakasle aritu ostean nabarmen ikusi zuen mendiak esploratzeak askoz ere gehiago erakartzen zuela. Mendiak eskalatu, filmatu eta gero bizipenak kontatu nahi zituen. Urteen joanak asmoak bete eta amets gehiago ekarri zizkion. 1957an Hermann Buhl eta biak Broad Peak-eko (8.047 m) gailurrera iritsi ziren. Aurrenak ziren. Gainera estilo alpino garbian egin zuten; oxigeno eta zamaketaririk gabe. 1960an Makalu-ko (8.167 m) tontorra zapaltzen ere aurreneko pertsona bihurtu zen. 1974an Everesten ekialdeko gailurrera iristen aurrena, Shartse (7.502 m) ere urte hartan izan zen. Everesteko puntatik hartu zuen panoramika

Himalaiako gailur batean grabatutako aurreneko ikus-entzuzkoa da.

Mendiak merezitako gozamina eta enkontrua oparitu dizkio. 1976an Julie Tullis, aita bilbotarra zuen ingelesa, eza-gutu eta biek munduko filmazio talde 'garaiena' osatu zuten. Elkarrekin itzuli ziren Broad Peakeko puntara 1984an. Orduko hartan, Diembergerrek kontaktatzen duenez, Tullisek ikurrina eta Kataluniako senyera zituen jarrita beheko kanpalekuan bere familiako sustraiak present izateko. Behin baino gehiagotan izan zen Donostian bikotea beraien pelikulak aurkeztu eta sariak jasotzeko etorrira. K2ra ere, Diembergerren amestetako mendira, Tullisekin joan zen 1986ko udan. Iritsi ziren kaskora baina han galdu zen laguna. Sasoi tragikoa izan zen mendian. 66 urte zituela, pausoa non eman ondo zekiela, Nanga Parbat-era igotzeko ahalegina egin zuen.

K2 igo nuenetik Eburne Pasabanek lortu zuenerako... Aldaketak daude, noski, baina zorrea izan ezean... Mendian ezin da aurretik jakin.

Zuretzat zein da bizimodu ona?

Bizimodu sortzailea.

Euskaldunekin K2n, 1986ko desastrea

K2 Traum und Schicksal liburutik. "Igoera ona eta zorte on. Hitz horiek agurtu ditugu gure lagun euskaldunak (...) Julie eta biok hunkituta gaude hasieran beraiekin batera egin nahi genuelako espedizioa (...) Ez euren estiloa bakarrik, euren pentsatzeko modua ere geurea da. Baina gu Mari eta Josema baino hiru aste beranduago iritsi gara K2 magalera eta ez gaude nahikoa aklimatatuta".

Casimiro eta Abregoren itzulera ere jaso zuen Diembergerrek: "*Hor datoz! Mari eta Josema hemen izango dira pare bat minutuan!* zurrumurrua dendaz-denda hedatu da. Renato lasterka doa beraiengana. Eta gu bere atzetik, beste asko ere bai. Pozik gaude lortu dutelako baina baita bizirik daudelako ere. Hemen daude. Begiengatik eta irri-barreagatik bakarrik ezagutu daitezke. Zimurrez josita daude, pisuaren laurden bat galduko zuten. Aranpasak dirudite. Itxura itsusiko bi nano, ia ahotsik gabe... eta hala ere hain maiteak eta estimatuak".

Eta alpinismo ona?

Sortzailea, noski. Zazpigarren zentzutik datorena.

Zein bertute behar luke alpinistak?

Pazientzia. Poliki ibili behar da, gutxinaka gutxinaka, ttipi-ttapa pausoz pauso osorik iristea lortzen da, eta oso urrutira. Hodeiekin eta zeruarekin mintzatu behar da, aitzinera egiteko momentua dela sentitu behar da. Ah! Eta zorrea; zorterik gabe ezin inora heldu. K2 bezalako mendietan zorrea behar duzu.

Zein mendi maite dituzu gehien?

Txikitan kristal bila hasi nintzen mendian ibiltzen. Kristalak diruditen mendiak gustatzen zaizkit: Aiguille Noire de Peuterey, K2 eta Ama Dablam horietakoak dira. Ama mendiak dira. Inguruko jendeak errespetatu egiten ditu mendiok, eta mendiok jende horiek babesten dituzte; bizia dutelako. Esan nahi dudana da mendiak ez direla gailurra bakarrik, serakak, elurra... biltzen duten bizi guztia dira mendiak; animaliak, landareak, jendeak... ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA

943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea